



## Orain dala 65-60 urteko pelotari oñatiarrak

**A**loña Mendiko pelota-saillak aurtan 50. urteurrena ospaketan dauela ondotoxo dakizue askok honezkero. Izan be, urtian zihar ahainbat partidu, jaialdi eta bestelako ekintza antolaketan dihardue. Hurrengo hillabetetarako be gauza gehixago ei dakoi pentsauta. Guk, orrialde honetatik, euren lanak eta ahalegiñak aittatu eta eskertu gura gittuke.

Horretarako, Aloña Mendi kirol alkarteko pelota-sail hori sortu baiño lehentxuago **guk ikusi geben pelota-girua gogoratuko dotsuegu**. Plazako frontoi zaharrian makiñatxo bat ordu pasautakuak gara mutikotan: batian pelotan, hurrengo bizikletan, kartetan be bai. Pelotarako zaletasuna orduan sortu xakun. **Uda partian**, ikaslion bakaziño luzietan, **seirak aldera agerketan ziran mutilgizon helduaguak**, euren lanleketuan jardun ondoren, **guretzat benetako pelotarixak ziranak**. Eta, gehixenetan, zaharraguok ezkin-tuein beste barik kantxatik uxaketan; alkarrekin hamar edo hamabost minutu *fueraka* jokatu eta gero, gustura jaretan gosten gaztetxuok maixuairi pelotaleku osua. **Giro oso politta egoten zan.**

Orduan ezagutu gittuan, bestiak beste, gaurko argazkittan agiri diran pelotari txantixuar batzuk be. Esate baterako, **Santos Salas** eta **Karlos Aia**stui. Santos Tetuan auzuan bizi zan, gar eguneko Zubibarri kalia; Karlos, berriz, San Juan kaleko Otsuaneke kale-baserrixan. Argazkixan ezkerrekua *Otsua* da, ule illunarekin, eta Salas, ule zuriduna, eskumakua. Bata zein bestia inportantia Oñatiko pelotaren historixan. Honeik baiño gaztiaguak ziran hurrengo fotografixakuak: **Manolo Arregi**, Patrua kalekua, eta **Eufrasio Belategi**, Olabarrieta auzoko Tiruena baserrikua. Sasue haretan Txantixu Txoko alkartia arduraketan zan pelotakontuekin.

Eufraasiok eta Manolok luzaruan ahaztu ezkeben **pelota-desafixua egin euen alkarrekin**. Etzan bakarra izan orduan, baiña bai famauena, akaso. **Plazako pelotaleku horretan jokatu zan 1959ko mariatzaren 1ian**. Atzetik, zirikatzaile, bi kuadrilla bero eukain: olabartarrak eta kaletarrak. **Kondiziñuak Kale Barriko Aizkorri tabernan, Torrenian**, ifiñi eta argittu zittuain. **Argazkixaxa partidua hasi aurretikua da**: adiskide eta irribarrez ikusten dira, alkarri eskua emuten. Gero, baiña, **gorabeherarik etzan falta izan**; partidua oso gogorra eta peliaua jokatu ondoren, eztabaida eta guzti amaittu zan, juezen erabagixak tarteko. **Azkenian Belategi geratu zan irabazle, 22-19.**

J. E.

Karlos eta Santos argazkixa Andres Arlanzonek atara eben; guri Karlos *Otsuaren* familixiak eskuratu dosku. Manolo eta Eufraiorena, berriz, Jose Luis Plazaolarena da; eta guri Manolo Arregiren familixiaren bittartez aillegau xaku. Argibide batzuk Anjel Elgerok eta Esteban Ugartek samurtu doskue. Milla esker danoiri!